NAZIOARTEKO UNIBERTSITATE-TITULAZIO BATERATUAK KALITATEA BERMATZEKO EUROPAKO IKUSPEGIAREN *(European Approach for Quality Assurance of Joint Programmes)* ARABERA EBALUATZEKO PROTOKOLOA

Irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuaren arabera, unibertsitate-ikasketen antolaketa eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituena.

2022ko apirilaren 29koa REACUren bileran onartutakoa

Unibertsitateen Kalitaterako Agentzien Espainako Sareak (REACU) onartutako jatorrizkoaren itzulpena

2022, uztaila

Sarrera

2015ean, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua osatzen duten herrialdeetan goi-mailako hezkuntzan eskumena duten ministerioek Yerevango Komunikatua[1] sinatu zuten. Agiri hartan, **Programa Bateratuen Kalitatea Ziurtatzeko Europako Ikuspegia** (*European Approach for Quality Assurance of Joint Programmes*[2]) onetsi zuten, Europako goi-mailako hezkuntzako erakunde bik edo gehiagok diseinatzen eta ezartzen dituzten programa bateratuetarako. Ikuspegi hori Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko (GHEEko) kalitatea ziurtatzeko irizpide eta jarraibideetan oinarriturik dago (ESG,2015)[3], eta, beraz, GHEE osoko kalitatea ziurtatzeko kanpo-sistema guztiei aplika dakieke. Europako Ikuspegi horrekin, xede hauek lortu nahi dira:

- Programa bateratuak garatzeko oztopoak ezabatzea, eta, horretarako, GHEEan adostutako tresnetan oinarritzen diren programetarako estandarrak ezartzea, irizpide nazional gehigarriak aplikatu gabe.
- Programa bateratuen kalitatea bermatzeko ikuspegi integratuak ematea, programa horiek benetan bateratuak direla erakusteko.

Horren bidez, programa bateratuei buruzko egiaztapena GHEE osoan onestea lortu nahi da, egiaztapen-prozedura bakar batean oinarriturik, eta, hartara, goi-mailako hezkuntzako erakundeen arlo horretako ahaleginak nabarmen murriztea, egiaztapen-esparru eta -araubide nazional desberdinak direla eta.

Horretaz gainera, nazioarteko GHEE lehiakor bat ezartzeko bidean aurrerapausoak egiteko, Europako Batzordeak Erasmus + ekimena abiarazi zuen 2019an, Europako Unibertsitateak sortzeko. Partzuergo horiek Europako goi-mailako hezkuntzako hainbat erakundek osatzen dituzte, eta balio europarrak sustatuko dituen prestakuntza- eta ikerketa-proiektu erkide bat eskaintzen dute. Espero da Europako Unibertsitateek modu erabakigarrian laguntzea Europako Hezkuntza Esparru eta Europako Ikerketa Esparru (ERA[4], ingelesezko siglen arabera) berritzaile, lehiakor eta erakargarrien ikuspegi handinahia lortzen.

Espainiari dagokionez, Irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuak, unibertsitate-ikasketen antolaketa eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituenak, hauxe dio 5.5 artikuluan: Espainiako unibertsitateek aukera izango dute Espainiako unibertsitate baten edo gehiagoren eta atzerriko unibertsitate baten edo batzuen artean (*dokumentu honetan, goi-mailako hezkuntzako erakunde gisa aipatzen dira*) diseinaturiko baterako ikasketa-planak egiaztatzeko. Ikasketa-plan horiek graduko, masterreko edo doktoretzako unibertsitate-titulu ofizial bat lortzera bideratuak izango dira, eta hitzarmen batean formalizatuko dira, ondoren egiaztatzeko memorian jasoko dena.

Errege Dekretu horren beraren seigarren eta zazpigarren xedapen gehigarrietan adierazten denez, goi-mailako hezkuntzako erakundeek **Nazioarteko Programa Bateratuen Kalitatea Ziurtatzeko Europako Prozedura** baliatu ahalko dute (*dokumentu honetan, Programa bateratuen kalitatea ziurtatzeko Europako ikuspegi esaten zaio*), ebaluazio-prozesu faseei dagokienez: egiaztapena, funtsezko aldaketa eta egiaztapena berritzea; betiere titulazioa koordinatzen duen goi-mailako hezkuntzako erakundearen herrialdeak prozedura hori izenpetu badu.

Bestalde, titulazio bateratuen ebaluazio-prozesuaren etapetan (egiaztatzeko, funtsean aldatzeko eta egiaztapena berritzeko), aurreikusirik dago Espainiako kalitate-agentzia eskudunek Goi-mailako Hezkuntzaren Kalitatea Bermatzeko Agentzien Europako Erregistroan (EQAR, ingelesezko siglen arabera) inskribatutako ebaluazio-organoek egindako ebaluazio-txostenak onartzea.

[1] https://www.ehea.info/page-ministerial-conference-yerevan-2015

[2] https://www.eqar.eu/kb/joint-programmes/

[3] https://www.enqa.eu/esg-standards-and-guidelines-for-quality-assurance-in-the-european-higher-education-area/

[4] https://www.consilium.europa.eu/media/49659/st08658-en21.pdf

Beraz, errege-dekretuak nazioarteko ikasketa-plan bateratuen ebaluazioari buruz planteatutako agertokiak Espainiako kalitate-agentzien jarduera-protokoloak zehaztea eskatzen du, baldin eta halako ebaluazio-prozesuak egiten badituzte edo EQARan inskribatutako agentzia batek egindako ebaluazio-txosten bat onartu behar badute, goi-mailako hezkuntzako erakundeek titulu bateratu hori Unibertsitate, Ikastegi eta Tituluen Erregistroan (RUCTean) inskribatu ahal izan dezaten. Kanpo-ebaluazioari dagokionez, protokolo horiek nazioarteko programa bateratu guztiak hartzen dituzte kontuan, eta ez dute bereizketarik egiten proposatzen duen goi-mailako hezkuntzako erakundeen partzuergo-motarekiko (Europako Unibertsitate gisa onartu duten ala ez aintzat hartu gabe).

Definizioak

European Approach for Quality Assurance of Joint Programmes ikuspegiaren arabera, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko (GHEEko) goi-mailako hezkuntzako hainbat erakundek elkarrekin integratutako, koordinatutako eta eskainitako ikasketa-plan gisa ulertzen da **programa bateratua**, berdin diolarik parte hartzen duten goi-mailako hezkuntzako erakundeen herrialdeetan titulu bikoitz/anizkoitz edo titulu bateratu gisa onartu dituzten ala ez[5]. Programa bateratua egin ondoren ikasleek lortutako onarpen-mota herrialde bakoitzeko araudi nazionalaren araberakoa izango da.

Garrantzitsua da zehaztea Europako Ikuspegiak bi herrialde edo gehiagoko goi-mailako hezkuntzako erakundeek eskaintzen dituzten programa bateratuei soilik egiten diela erreferentzia, eta ez duela bermatzen herrialde bereko hainbat erakundek batera ematen dituzten programen kalitatea.

[5] Definizioak eta azalpenak kontsultatzeko, bisitatu https://www.eqar.eu/kb/joint-programmes/definitions/ eta http://ecahe.eu/latest-publications/publication-joint-programmes-from-a-to-z-guide/.

Europako ikuspegiaren irizpideak eta jarraibideak

Hona hemen programa bateratuen kalitatea ziurtatzeko Europako Ikuspegirako adostutako irizpideak eta jarraibideak:

1. Hautagarritasuna

1.1 Goi mailako hezkuntzako erakundeen egoera

Programa bateratua eskaintzen duten goi-mailako hezkuntzako erakundeak —dokumentu honen gainerako zatietan partzuergo deitzen zaie— beren herrialdeetako agintari eskudunek onartu behar dituzte goi-mailako hezkuntzako erakunde gisa. Haien lege-esparru nazionalak aukera eman behar die programa bateratuan parte hartzeko eta, dagokionean, titulu bateratua emateko. Tituluak ematen dituzten erakundeek ziurtatu behar dute onartzen direla egoitza ezarrita daukaten herrialdeetako goi-mailako hezkuntzako titulu ofizialen sisteman.

1.2 Baterako diseinua eta irakaskuntza

Programa bateratua elkarrekin eskaini behar dute lankidetzan diharduten erakunde guztiek; hau da, denek inplikatu behar dute programa diseinatzen eta gauzatzen.

1.3 Lankidetza-hitzarmena

Goi-mailako hezkuntzako erakundeen arteko lankidetza-hitzarmen batean ezarri behar dira programaren terminoak eta baldintzak. Hitzarmenak gai hauen berri eman behar ditu:

- Programan emandako titulu(ar)en izena(k).
- Inplikatutako bazkideen koordinazioa eta erantzukizunak, finantza-kudeaketa eta -antolaketari dagokionez (barnean harturik finantzaketa, kostuen eta diru-sarreren banaketa eta abar).
- Ikasleak onartzeko eta hautatzeko prozedurak.
- Ikasleen eta irakasleen mugikortasuna.
- Azterketen araudia, ikasleak ebaluatzeko metodoak, kredituak aintzatestea eta partzuergoan tituluak emateko prozedurak.

2. Ikasketa-emaitzak

2.1 Maila (1.2 ESGa)

Aurreikusitako ikasketa-emaitzak GHEEren Kualifikazio Esparruan (QF-EHEA) dagokion mailarekin lerrokatu behar dira, baita aplikatu beharreko kualifikazioen esparru nazionalekin ere.

2.2 Diziplina-eremua

Aurreikusitako ikasketa-emaitzek jakintzak, trebetasunak eta gaitasunak bildu behar dituzte, dagozkien diziplina-eremuetan.

2.3 Ikasketa-emaitzak (1.2 ESGa)

Programak gai izan behar du aurreikusitako ikasketa-emaitzak lortzen direla frogatzeko.

2.4 Araututako lanbideak

Programa bateraturako garrantzitsua bada, kontuan hartu behar dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/55/EB Zuzentarauan (2005/36/EE Zuzentaraua aldatzen duenean) eta haren eguneratzeetan zehaztutako gutxieneko heziketa-baldintzak, lanbide-kualifikazioak aintzatesteari buruzkoak, edo zuzentarauan ezarritako heziketa-esparru erkideei buruzkoak.

3. Ikasketa-programa (1.2 ESGa)

3.1 Ikasketa-plana

Ikasketa-planaren egiturak eta edukiak egokiak izan behar dute ikasleari aurreikusitako ikasketa-emaitzak lortzeko aukera emateko.

3.2 Kredituak

Kredituak Transferitzeko Europako Sistema (ECTS, ingelesezko siglen arabera) behar bezala aplikatu behar da, eta kredituen banaketak argia izan behar du.

3.3 Lan-karga

Gradu-programa bateratu baterako, oro har, 180-240 ECTS kredituko guztizko lan-karga dagokio ikasleari; master-programa bateratu batek 90-120 ECTS kreditu izaten ditu, eta ez du izan behar 60 ECTS kreditutik beherakoa (kreditu-tarteak QF-EHEAren arabera). Doktoretza bateratuen kasuan, berriz, ez da zehazten kreditu-tarterik.

Lan-kargaren eta programa osatzeko batez besteko denboraren jarraipena egin behar da.

4. Onarpena eta aitzatespena (1.4 ESGa)

4.1 Onarpena

Onarpen-baldintzek eta hautaketa-prozedurek egokiak izan behar dute programaren mailaren eta diziplinaren arabera.

4.2 Aintzatespena

Lisboako Aintzatespen Hitzarmenaren eta agiri subsidiarioen arabera aplikatu behar dira kualifikazioen eta ikasketa-aldien aintzatespena (aurretiko ikasketak ere barne harturik).

5. Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa (1.3 ESGa)

5.1 Ikaskuntza eta irakaskuntza

Aurreikusitako ikasketa-emaitzekin bat etortzeko moduan diseinatu behar da programa, eta horiek lortzeko aplikatutako ikaskuntza- eta irakaskuntza-ikuspegiek egokiak izan behar dute. Ikasleen aniztasuna eta premiak errespetatu eta aintzat hartu behar dira, batez ere haien errealitate kulturalei erreparaturik.

5.2 Ikasleen ebaluazioa

Azterketen araudiek eta lortutako ikasketa-emaitzen ebaluazioak bat etorri behar dute aurreikusitako ikasketa-emaitzekin. Koherentziaz aplikatu behar dira kideturiko erakundeen artean.

6. Ikasleentzako laguntza (1.6 ESGa)

Ikasleentzako laguntza-zerbitzuek aurreikusitako ikasketa-emaitzak lortzen lagundu behar dute. Mugikortasun-programetan parte hartzen ari diren ikasleen erronka espezifikoak kontuan hartu behar dituzte.

7. Baliabideak (1.5 ESGa eta 1.6 ESGa)

7.1 Langileak

Langileek ikasketa-programa ezartzeko nahikoak eta egokiak izan behar dute (kualifikazioa, esperientzia profesionala eta nazioarteko esperientzia).

7.2 Instalazioak

Eskura ipinitako instalazioek nahikoak eta egokiak izan behar dute, aurreikusitako ikasketa-emaitzak kontuan harturik.

8. Gardentasuna eta dokumentazioa (1.8 ESGa)

Ondo dokumentatuta eta argitaratuta eduki behar da programari buruzko informazio garrantzitsua, hala nola, onarpen-baldintzak eta -prozedurak, ikastaroen katalogoa, azterketa- eta ebaluazio-prozedurak, betiere mugikortasun-programetan parte hartzen ari diren ikasleen premia espezifikoak kontuan hartuta.

9. Kalitatea ziurtatzea (1.1 ESGa eta 1. Zatia)

Lankidetzako erakundeek barne-kalitatea ziurtatzeko baterako prozesuak aplikatu behar dituzte, 2015eko ESGen 1. zatiari jarraikiz.

Irizpide horietako bakoitzaren azalpen xehatua lortzeko, Erasmus+ proiektuaren «Facilitating the implementation of the European Approach for Quality Assurance of Joint Programmes – ImpEA»[6] «Understanding EA»[7] atalean dago jasota.

Taula honetan laburbiltzen da Europako Ikuspegiko irizpideen eta 2015eko ESGen arteko baliokidetasuna:

2015eko ESGak	Europako Ikuspegia
1.2. Programen diseinua eta onespena	2. Ikasketa-emaitzak 3. Ikasketa-programa
1.4. Ikasleen onarpena, bilakaera, aintzatespena eta ziurtapena	4. Onarpena eta aintzatespena
1.3. Ikasleak oinarri dituen irakaskuntza, ikaskuntza eta ebaluazioa	5. Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa
1.6. Ikaskuntzarako eta ikasleei laguntzeko baliabideak	6. Ikasleentzako laguntza
1.5. Irakasleak 1.6. Ikaskuntzarako eta ikasleei laguntzeko baliabideak	7. Baliabideak
1.8. Informazio publikoa	8. Gardentasuna eta dokumentazioa
1.1. Kalitatea ziurtatzeko politika 1.7. Informazioaren kudeaketa 1.9. Programen etengabeko jarraipena eta aldizkako ebaluazioa 1.10. Kalitatearen kanpo-ziurtapen ziklikoa	9. Kalitatea ziurtatzea

[6] https://impea.eu/

[7] https://impea.eu/understanding-ea/

ESPAINIAKO AGENTZIA BATEK EQAR ERREGISTROAN INSKRIBATUTAKO BESTE AGENTZIA BATEK EUROPAKO IKUSPEGIA BALIATUZ EGINIKO IKASKETA-PLAN BATERATUEN EBALUAZIO-TXOSTENAK ONARTZEKO PROZEDURA

822/2021 Errege Dekretuaren seigarren eta zazpigarren xedapen gehigarrietan ezarritakoaren arabera, Espainiako kalitate-agentzia eskudunek onartuko dituzte Goi-mailako Hezkuntzaren Kalitatea Bermatzeko Agentzien Europako Erregistroan (EQARan) inskribatutako ebaluazio-organoek egindako ebaluazio-txostenak, irakaskuntza ofizialetako ikasketa-planak egiaztatzeko prozeduran aurreikusitako txostena emateko (822/2021 Errege Dekretuaren 26. artikulua).

Hori dela eta, agentziek, beren eskumenak baliatzean, beharrezko mekanismoak izan behar dituzte, GHEEan nazioarteko programa bateratuen ebaluazio-txostenak onartzeko, betiere goi-mailako hezkuntzako erakunde koordinatzailearen herrialdeak Europako Ikuspegia izenpetu badu eta programa bateratuaren ardura duten erakundeek EQARan inskribatutako kalitatea bermatzeko agentzia bat aukeratu badute ebaluazioa egiteko—eta agentzia horrek ebaluazio-prozesua Europako Ikuspegian ezarritako prozeduraren arabera egin badu—. Ezarritako prozeduran, agentziak txosten bat egingo du Europako Ikuspegiaren arabera egindako ebaluazioaren emaitza onartzeko, eta txostena kalitatea ziurtatzeko prozedura ebaztearen aldekoa edo kontrakoa izango da. 822/2021 Errege Dekretuan ezarritakoaz bestelako kreditu-karga bat duen baterako graduko unibertsitate-tituluaren kasuan, horri buruzko iritzia emango du txostenak, seigarren xedapen gehigarriaren 4. atalean eta zazpigarren xedapen gehigarriaren 10.ean aurreikusitakoaren arabera. Txostena titulu bateratuan parte hartzen duen Espainiako goi-mailako hezkuntzako erakundeari, autonomia-erkidegoko organo eskudunari eta Unibertsitate Kontseiluari bidaliko zaie, programa bateratua Unibertsitate, Ikastegi eta Tituluen Erregistroan (RUCTean) inskribatzeko prozesua osa dezaten eta, aldeko txostena jasoz gero, Espainiako titulu ofizial gisa onar dezaten.

Nazioarteko programa bateratuan parte hartzen duen Espainiako goi-mailako hezkuntzako erakundeak programa bateratua Espainiako estatuan titulu ofizial gisa onartzeko nahitaezko izapideak egingo ditu Espainiako ministerio eskudunaren eta Espainiako goi-mailako hezkuntzako erakundeari dagokion autonomia-erkidegoaren aurrean.

NAZIOARTEKO PROGRAMA BATERATU BAT EUROPAKO IKUSPEGIARI JARRAIKIZ EBALUATZEKO PROZEDURA

Nazioarteko programa bateratu baten ebaluazioa Espainiako agentzia batek egiten duenean, goi-mailako hezkuntzako erakundeen partzuergoak ezarriko ditu programa bateratuaren koordinatzailea eta agentziarekiko zuzeneko komunikazioaren arduraduna den goi-mailako hezkuntzako erakundea, bai eta RUCTean inskribatzeaz eta Espainiako titulu ofizial moduan onartzeaz arduratuko den Espainiako goi-mailako hezkuntzako erakundea ere. Partzuergoan Espainiako goi-mailako hezkuntzako erakunde batek parte hartzen badu, horixe arduratuko da Espainiako ministerio eskudunaren eta autonomia-erkidegoaren aurrean egin beharreko nahitaezko izapideak egiten direla bermatzeaz, programa bateratua Espainiako estatuan titulu ofizial gisa onets dadin.

Autoebaluazio-txostena (2.3 ESGa)

Programa bateratuaren kalitatea ziurtatzeko prozeduraren lehen elementua partzuergoak elkarrekin egiten duen autoebaluazio-txosten batean oinarritzen da. Autoebaluazio-txostenak informazio osoa izan behar du, eta frogatu behar du programak, lehen deskribatutako Baterako Programen Kalitatea Ziurtatzeko Europako Ikuspegiaren (*European Approach*), estandar eta irizpide guzti-guztiak betetzen dituela.

Gainera, parte hartzen duten goi-mailako hezkuntzako erakundeen esparru nazionalei buruzko informazioa jaso behar du txostenak, ebaluazio-panelak testuingurua balioets dezan, eta, bereziki, ikus dezan zer posizionamendu duen programak goi-mailako hezkuntzako sistema nazional bakoitzean.

Autoebaluazio-txostenak berariaz nabarmendu behar du programa bateratuaren ezaugarri bereizgarria, goi-mailako hezkuntzako sistema nazional bat baino gehiago dituzten goi-mailako hezkuntzako erakundeen baterako ahalegina baita.

Ingelesa da autoebaluazio-txostena egiteko hizkuntza lehenetsia. Beste hizkuntza bat erabili nahi izanez gero, adostu egin behar dute ebaluazio-prozesua koordinatzen duen goi-mailako hezkuntzako erakundeak eta Espainiako agentziak. Partzuergo eskatzaileak egingo ditu dokumentazioaren beharrezko itzulpenak. Autoebaluazio-txostena osatzeko, ImpEAk[8] emandako formatua erabil dezake partzuergoak.

Ebaluazio-panela (2.3 ESGa eta 2.4 ESGa)

Europako Ikuspegia aplikatzeko ebaluazio-panela egokitasun-, independentzia-, genero-, erantzukizun-, eskuragarritasun- eta ordezkaritza-irizpideen arabera hautatzen da, eta gutxienez 4 pertsonak osatzen dute. Panelak esperientzia izan behar du programa bateratuaren diziplinan (lan-merkatua barne hartuta), bai eta goi-mailako hezkuntzaren kalitatea bermatzen ere. Ezagutu egin behar ditu inplikaturiko goi-mailako hezkuntzako erakundeen hezkuntza-sistemak, eta jakin behar du, orobat, zer hizkuntzatan emango den programa. Programa ematen duen partzuergoko herrialdeetatik bitako kideak izan behar ditu, behintzat, panelak, eta gutxienez ikasle bat. Espainiako agentziak bermatuko du ebaluazioa egiteko pertsonarik egokienak, profila betetzen dutenak, hautatuko dituela. Ebaluazioan Espainiako agentziako teknikarien laguntza izango du panelak une oro. Teknikariek ez dute ebaluazioan parte hartzen.

Panela hautatu ondoren, partzuergoak paneleko kide bati ezezko motibatua eman ahalko dio, baina ezingo du erabili beto-eskubidea. Espainiako agentziak eragozpenak aztertuko ditu, eta panela osatzen duten pertsonak izendatuko ditu, beharrezko aldaketak egin ostean.

Ebaluazio-paneleko pertsona guztiek sinatuko dute konpromiso etikoaren dokumentua, eta berariazko prestakuntza jasoko dute ebaluazio-prozesuari, haren eginkizun zehatzei eta Europako Ikuspegiaren aplikazioari buruz.

[8] http://impea.online/template-for-self-evaluation-released/

Bisita (2.3 ESGa)

Ebaluazio-panelak, Espainiako agentziako teknikarien laguntzarekin, bisita-programa bat proposatuko du. Programan bateratuan parte hartzen duten goi-mailako hezkuntzako erakundeetako ordezkariekin bilerak egingo dira, bereziki erakunde horietako eta programako zuzendaritza-taldearekin, irakasleekin, ikasleekin eta beste interes-talde garrantzitsu batzuekin, hala nola egresatuekin eta lanbide-arloko ordezkariekin.

Bisitaren programa eta bisita-lekua (zein erakundetan egingo den bisita) ebaluazioa koordinatzen duen erakundearekin bat etorriz definituko dira.

Bileretan, ahal dela, aurrez aurre parte hartuko da, baina bisita birtualak egitea ere aurreikusten da; kasu horretan, bisitatutako goi-mailako hezkuntzako erakundeak emandako bideokonferentzia-sistemak baliatuko dira.

Ebaluazio-panelak informazio gehigarria eska dezake, bisitaldian berrikusteko. Horretarako, bisita-programaren proposamenarekin batera, aurkeztu beharreko dokumentu edo froga osagarrien zerrenda ere jasoko da.

Bisitaz arduratzen den Goi-mailako hezkuntzako erakundeak leku apropos bat eskainiko du bilerak modu egokian egiteko, eta ebaluazio-panelak eskatzen dituen baliabideak jarriko ditu eskura.

Ebaluazio-txostena (2.3 ESGa eta 2.6 ESGa)

Ebaluazio-panelak behin-behineko txostena prestatuko du, ahal dela ingelesez. Txosten horretan, Europako Ikuspegiko irizpide bakoitza betetzeari buruzko azterketa eta ondorio garrantzitsuak jasoko dira, behar bezala justifikatuta, betiere aurkeztutako ebidentziak eta bisitan eginiko aurkikuntzak kontuan hartuta.

Irizpide bakoitza honela ebaluatuko da: «Lortu da», «Partzialki lortu da» edo «Ez da lortu».

Behin-behineko txostenak ebaluazio-panelak antzemandako jardunbide egokiak bilduko ditu, bai eta panelaren iritziz baterako programaren proposamena hobetzen duten alderdiak ere. Dagokionean, aldeko txostena lortzeko nahitaez aldatu behar diren elementuak ere jasoko ditu.

Ebaluazioa koordinatzen duen goi-mailako hezkuntzako erakundera bidaliko da behin-behineko txostena. Erakunde horrek denbora izango du antzemandako akats materialei erantzuteko, eta une horretan ezingo du eman ebidentzia berririk. Epe hori igaro ondoren alegaziorik jasotzen ez bada, behin betikotzat joko da behin-behineko txostena.

Goi-mailako hezkuntzako erakunde koordinatzaileak ebaluazio-panelaren behin-behineko txostenari emandako erantzuna ebaluatu ondoren, behin betiko txostenaren proposamen bat idatziko da, ebaluazioaren emaitza formala erabakitzeko gomendio batekin. Ebaluazio-panelak ImPEAren[9] eredua balia dezake ebaluazio-txostena prestatzeko.

Emaitza eta erabaki formala (2.5 ESGa)

Ebaluazio-panelaren gomendioa kontuan hartuta, Espainiako agentziak ebaluazioaren emaitzari buruzko erabaki formala emango du (aldekoa edo kontrakoa), ezarrita daukan prozedurari jarraikiz, eta 6 urteko balioa izango du, sinatzen den egunetik zenbatzen hasita. Txostenak jarraipenaren aldizkakotasuna ere ezarriko du. 822/2021 Errege Dekretuan ezarritakoaz bestelako kreditu-karga bat duen gradu bateratuko unibertsitate-tituluaren kasuan, horri buruzko iritzia emango du txostenak, seigarren xedapen gehigarriaren 4. atalean eta zazpigarren xedapen gehigarriaren 10.ean aurreikusitakoaren arabera.

[9] http://impea.online/io4_panel-report_template_final/

Espainiako agentziak ebaluazio-prozesua koordinatzen duen goi-mailako hezkuntzako erakundeari jakinaraziko dio emaitza formala, eta hark inplikatutako gainerako erakundeei helaraziko die, herrialde bakoitzean programa bateratua ofizialki onesteko beharrezko prozesuak gauzatu ahal izan ditzaten.

Erreklamazioak eta errekurtsoak (2.7 ESGa)

Ebaluazio-prozesu hori erreklamatu eta errekurritu egin ahal izango dute goi-mailako hezkuntzako erakundeek, agentzia ebaluatzailearen prozedura baliatuz.

Argitalpena (2.6 ESGa)

Ebaluazio-txostena eta erabaki formalaren emaitza agentzia ebaluatzailearen webgune ofizialean eta EQARren[10] datu-basean argitaratuko dira.

Jarraipena (2.3 ESGa)

Aldeko ebaluazioa lortu ondoren, eta ebaluazio-agentziak bere ebaluazio-txostenean ezarritako aldizkakotasunarekin, programa bateratuaren ardura duten erakundeek titulu bateratuaren ezarpenaren gaineko jarraipen-txostena helaraziko diote Espainiako agentziari, azken horrek ezarritako jarraipen-programaren arabera.

Txostena, ahal dela, hasierako ebaluazio-paneleko kideek berrikusiko dute; programaren ezarpenari buruzko balorazio-txostena egingo dute, eta, bidezkoa bada, gomendioak ere egingo dituzte.

Aldizkotasuna (1.10 ESGa)

Programa bateratua 6 urtean behin berrikusiko da, eta, beraz, erabaki formalak programa horren balio-denbora aurreikusten du. Partzuergoa arduratuko da beste ebaluazio bat eskatzeaz, gutxienez aurrekoaren 6 urteko balio-aldia bete baino urtebete lehenago. Ebaluazioa egiteko beste agentzia bat aukeratuz gero, partzuergoak erabaki horren berri eman beharko dio Espainiako agentziari.

Partzuergoa deseginez gero, goi-mailako hezkuntzako erakundeek horren berri eman beharko diote Espainiako agentziari, eta programa bateratua amaitzeko ezarritako mekanismoak ere jakinaraziko dizkiote.

[10] https://www.eqar.eu/qa-results/search/by-institution/